

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak % 0,5 egin du behera 2012ko bigarren hiruhilekoan

*Aldi horretan urteko lehen hiruhilekoan baino jaitsiera txikiagoa izan du,
% 0,7koa izan zena*

Lunes, 30 de julio de 2012

Nafarroako ekonomiaren Barne Produktu Gordinak (BPG) % 0,5 egin du behera 2012ko bigarren hiruhilekoan (lehen hiruhilekoan % -0,7koa izan zen), jakinarazi du gaur goizean Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak. [Urteko bigarren hiruhileko honen Foru Komunitateko ekonomiaren bilakaeraren berri eman du.](#)

Nafarroaren urte arteko hazkundera % -1,4koa da; Espainiakoa, berriz, % 1,0koa, Nafarroako Estatistika Institutuak gau argitaratu dituen [Nafarroako hiruhileko kontabilitate-datuaren aurrerapen](#)en arabera.

Bigarren hiruhileko honetan Nafarroako ekonomiak izandako bilakaerari buruzko informazioa eman dio. Goicoechea kontseilariak adierazi duenez, bizitzen ari garen egoera ekonomia oso konplikatu da eta Nafarroako ekonomiaren bilakaerak bizitzen ari garen unea adierazten du. Gainera, aipatu du, "datuek aurtengorako proiektatutako joera berresten dutela, hau da, hiruhilekoen arteko BPGa gutxiago jaitsiko zela eta gehiago jaitsiko zela urte artekoen kasuan urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuz".

Krisia hasi zenetik datuak aztertuz gero, ikusten da Nafarroako Foru Komunitateak hazkunde-datu hobekak dituela, azken hiru hiruhilekoak salbu. Une hauetan, Nafarroako hiruhileko BPGa 2007ko azken hiruhilekoaren antzeko mailetan dago; Espainiakoa, berriz, portzentajeari erreparatuz, 4 puntu azpitik dago.

Goicoechea kontseilariak adierazi duenez, aurkeztutako datuak, beste faktore batzuen artean, barne-eskaera ahuletik datoz eta "gastua osatzen duten guztien ahultasunagatik eta, jakina, bertan beharrezko finkapen fiskalaren ahaleginaren eragina nabaritzen da". Bestalde, azpimarratu du krisiak sektore guztiak zigortzen diharduela eta industria-ekoizpena eta zerbitzuen sektoreko jarduera-indizea kaltetzen ari direla.

Kontseilariak adierazi duenez, "gaur aurkezten dugun datu zehatzetik haratago, zalantzaz betetako egoera batean jarraitzen dugu, errekuperazioari mehatxu egiten dioten arrisku garrantzitsuekin", eta Nazioarteko Moneta Funtsak egindako azken proiektioak aipatu ditu. Funts horrek 2012rako Espainiarako hazkunde-aurreikuspenak behetik berraztertu ditu.